

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Kasu honetan, bezeroekiko harremana automatizatu edo pertsonala izan daiteke, izan ere, aplikazioak hainbat atal izango ditu harreman pertsonala eskatuko dutenak, adibidez: Merchandaisinga eta antzeko jarduerak egiterakoan, bezeroak beharrezkoa izango du gurekin kontaktuan jartzea eskuratu nahi dituen produktuak lortzeko. Harreman pertsonala areagotzeko, telefono bat jarriko dugu aplikazioan edozein duda edo kexa guri iristarazteko. Beste batzuk harreman automatizatu eskatuko dute, adibidez: botilak eta lagunak aurkitzerakoan, GPSaren bidez funtzionatzen dutelako.

